



## AURRERANTZ

**Helbidea:**

Axular 3, behea 2, Portugalete.

**Telefonoa:**

657793704

**Posta elektronikoa:**

aurrerantzportugalete@gmail.com

**Web orrialdea:**

[www.aurrerantzportugalete.org](http://www.aurrerantzportugalete.org)

**Elkartearen deskribapena:**

Aurrerantz irabazi asmorik gabeko erakundea da, Portugaleteko boluntario talde batek bultzatua.

Helburua, herri justu eta solidario bat eraikitzea da, herriak dituen beharretan oinarrituta eta lekuko komunitatean geratzen diren proiektuetan inplikatzeko.

**PROIEKTUAK****Boluntario-proiektuak**

Igotzen:

Elkartearen boluntarioei zuzendutako proiektua da. Hauen harrera, agurra, formakuntzak eta ekintza ludikoak antolatzeke talde arduraduna da.

Monitore eta zuzendari tituluen praktikak egiteko aukera emonten da.

**Hautzaro-proiektuak:**

Ludoteka:

Kursoan zehar, urritik-ekainera, 5 eta 10 urte bitarteko umeentzat dan ludoteka hau egiten da; ostiraletan (bat izan ezik, monitoreek programazioa egiteko erabiltzen dutelako), 18:00etatik 20:00etara. Plaza kopurua: 30/40.

**Auzo/komunitate proiektuak:**

Barrio proiektua:

Proposatzen diren ekintzak, auzokideei zuzenduta dago, hau da, Errepelegakoei.

Batzutan, Portugalete osorako egiten da. Barrio lan-taldeak antolatu dituen ekintzetatik, batzuk hauek dira:

- Belaunaldiarteko Jardunaldia: Villanueva Gizarte Etxearekin.
- Errepelegako jaietan jokuen dinamizazioa.
- Emakumearen eguna.
- Emakumeenganako indarkeriaren kontrako eguna.

**Gabonetako Elintzak:**

Portugaleteko Maestro Zubeldia ikastetxean; txango ezberdinak egiten dira, Gabonetako haur parkera adibidez.

Jolas-egun hauek 5 eta 13 urte bitarteko neska-mutilentzat da. Doakoak dira eta 10:00etatik 13:00etara dira; txangoak dauden egunten izan ezik.

Plaza kopurua: 150; boluntarioen arabera.

**Udako ekintzak:**

Abuztuko lehenengo hamabostaldian hiri-udalekuak ospatzen dira, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara (txangoak dauden egunetan izan ezik), Maestro Zubeldia ikastetxean.

Udaleku hauek doakoak dira eta 3 eta 17 urte bitarteko neska-mutilei zuzenduta dago.

Programazioan: hasierako jaia herri bazkariarekin, piszinetara txangoak, irteerak, jokuak, tailerrak... 350 parte hartzaile daude, 70 gazte boluntarioen laguntzarekin.